

SEGURA

(Jarraipena.)

EKIDE MARGARRIAK

Segura-ko uriaren, lengo denboretako aunditasun ta leñargitasuna, gaurko egunian arkitzen da oraindik arrizko arrasto eder eta apañekin bere purube eche gain gañekoetan ta beste ekidetan.

Abetatik bat, lenengoa, beste guzien gain arkitzen dana, eleiz galant eta ederra da.

Zarra da, uri artan ezerchore zarrogorik ez da arkitzen, bada lenago esan genduen bezela, ainbeste aldiz erre ta kiškalduba izanik uria, ez da eleizaren denborako ekiderik zutik gelditu.

Amaidu garren eunkidaren atzen aldian jasoa izan biar du eleiz onek, uste ortan daude beñepin gauza ontan zerbait jakin lezateken guziak.

Aundia da, galanta, ango inguruan bere antzekorik ez dan gizan. Eta kontu izan biar da eleiz eder eta galantak Gipuzkoa-ko erririk geyenetan arkitzen dirala. Bere eleizak bai dira, beren aunditasun ta apainduria gatik, emen arkitzen diran aberastasun aundieneko ekideak.


Segura-ko eleiz nagusiak baditu gora dorrea-rekin 37 metro ta eleizak berak 24; 53 metro luze ta 28 zabal. Ez da beraz patrikeran sartzeko modukoa, baditu neurri ugariak. Nola ez, sei milla lagun bere barrunbian sartzen badira.

Gañera ondo ta sendo egintako eliza da. Eta orain baño ederragoa ta apañagon zan lengo denbora zarretan. Emezortzi garren eunkidan beste dorrea zeukan guztiz ikusgarria. Isasti kondairatzalle azkarrak esan oi zuben «beste eleizai ezer kendu gabe, Segura-koa zala Gipuzkoa-n garaiena.»

Oñez-tar eta ganboa-tarren gudak izan ziran denbora doakabe aye-

tan, oñez-tarrak purrukatu zuten lengo dorre gain gañekoa; berria egi-teakoan moch gelditu ziran ta, ez dauka lengoaren apainduri ederrik.

Arritzekoa dauka dorreak, bere ederki antolatutako eskallera ederra, 1884-garren urtian ipiñi zizayon chimist-orratza, 1889-garren urtian jarri zan orain esagutzen degun erleju dotoria. Albistur-ko Iñazio Zubillaga-k egin zuben, eta eraman zituben bera gatik lau milla errial eta lenagoko erleju zarra.



Segura-ko eleiza

Eleiza-ren kanpoko aldian dagon estalpea, 1878-garren urtian egiñada, Esteban Zurbano ta Braulio Alustiza jaunen kontu egin zan, eta amasei milla errial-etik gora jo zien jaun argidotar ayei, lan egoki ura.

Eleiz onen sarrerako atezabal egokien inguruan, apainen-etakoak dira. Arri ederrakin dena antolatua dauka ta beste edertasunen artian agertzen dira zazpi aingeru zoragarri, Birjiña Maria-ren zeru alaia osa-

tzen dutela. Amaika garren eunkidan egiten ziran lan egokiaren ichura betekoa da eleiz sarrera eder au.

Orain artian kanpoa bakarrik aitatu degu ta barruaz ere zerbait esateko ordua da. Ojival deitzen dan ichurakua da, eta sei pillare sendo ta mardulak daukate aidian bere zapai borobilla.

Aldare nagusia 1744-tik 1749-ra egiña, eta ez da len esan degun eleizaren tankerakua, bai *Churrigera* zanaren izenarekin esagutzen dan ichurakua. Bañan tankera onetakua izateko, ikusi dan ederrenetako bat, Segura-ko aldare nagusia da. Lau pillare galant eta egokiak eusten diore bere buru aldi apañari; erdi aldian, lekurik onenian ta agerie-nian, arkitzen da Birjiña Maria, amabi apostoluak inguratzen dutela; eta gorago ta berago, alde batian ta bestian, asaltzen dira Joakin, Ana, Jose ta Juan donea-ren iduri eder eta egokiak. Eleiz-mai gañian dagon Jainko-leku edo tabernakulua esagutu dan ederrenetako bat da. Ango apaintasuna, ango choragarrizko edertasuna.

Eta guzia Martin Lardizabal, segurar argidotarrari zor zayo.

Amabi milla peso urretan ta makiñabat zillar eta urrezko gauzak utzi zituen bere azken borondatian aldare nagusi au egiteko. Bere illoba Joakin izan zan azken borondatia osatu edo bete zubena. Eta bete ta osatu zuben, segurar zintzoak nai bezin lazter ondo ta egoki.

Uriak ere lagundu zuben naikoa, gain gañeko lan ontarako. Biar zan zur guztia, inchaur beltz ederra, uriak osatu zuben, eta ontaz gañera dirutan ere lagundu zuben, bada biztanleai, uriak kentzen zien dirue-tatik, lautatik bat aldare nagusia geyago ta geyago apaintzeko laja zuten.

Aldare nagusi au amaitu zan 1747-^{ko} Otsaillean, eta egin ziran eleiz festa gain gañekoak eta baita ere jai-aldi atsegiñ eta alayak.

Izan ere, ez zan guchiyagotako, alako edertasunaren jabe ikusi zi-ranian segurar zintzoak.

Ala beaz, izan ziran zezen festak, ziririzkuak ugari, kanpayak isildu gabe, soñu alayak Idiazabal eta Lazkao-ko chistulariak ortarako besterik gabe ekarriyak eta ler egiteko zoriyan aitu ziranak; eta azkenik ardo-iturriya nai zuben guztiyak churrut ugariak egitego. Ura zan, ura, fes-ta, arduaren festa. Bazan ordubanche, oju, zalaparta, iskanbilla ta irrin-tziya ugari.

Aldare nagusiaz gañera baditu beste zenbait aldare, ura bezin aundi ta apaiñak ez izana-gatik, gauza ikusgarriak dituztenak.

Abetatik bat, ostiral donean kalietan ibiltzen dan Jesus-en iduria egoten dan aldarea da.

1404-^{garren} urtean Nikolas Gebara-koak egiña da. Segura-ko seme ospetsua zan ta naitasun aundia zion bere jayo-erria-ri, eta naitasun aren bitartez utzi nai izan zuben oroipen gogoangarri au. 1848-^{garren} urteraño aldare onen lekua apaindua zegon Gebara-tarren eskutarma-kin, baña eskutatu zan leku artatik eta ez da geroztik iñoncho ere arkitu ez eskutarma, ez bere berririk.

Beste aldarechoan, azaltzen da Santiago apostolua saldi zuri baten gañean, mairu beltz batzuek anka pean zanpatzen ditubela.

Aldare onek ez dauka zer ikusi aundirik, eta egiaz esan liteke, bere antziñatasuna dala begirapen aundiena ematen diona.

Beste sei aldare geyago badira eleiz ontan; abetatik bi aldare nagusiaren antzera egiñak, bat Kristo-rena ta bestia Errosario-ko Birjiña Maria-rena. Urrengo biak, bata Kontzeziyo-ko Birjiña-rena ta bestea Purgatorio-ko arimena; bata baña bestia ederragoak, aldare nagusia baño lenagokuak izan biar dute. Azkeneko bi aldariak korupean daudenak dira, lenengo Aingeru Guardakoa-ri donkitua, eta bestea Gipuzkoa-ko Patroi atsegin Loyola-ko Inazio doneari.

Badauzka azkenik Segura-ko eleiz apaiñak edertasun geyago aitatu ez ditugunak, bada ez da izan gure asmua, banaka, banaka, guziyak izendatzea.

Uzte degu alaz guziyaz biarrenak aitatu ditugula, eta ikusgarritasun oyen bitartez esagutzen dala eleiz onen edertasun aundia, eta berak erakusten digula Segura-ko uria lengo denbora zarretan uri leñargi ta ots aundikoa zala.

Ala agertu da ere, bere kondaira-ko berri apur asaldu ditugunetan, eta ori bera ikusiko da oraindik esateko dakazkigun gauzak agertzen ditugunian.

HERMENEGILDO SUSTAETA

(Jarraituko da.)



SEGURA

(Jarraipena.)

Eleiz-nagusiaren urruti gabian dago Birjiña Maria-ren Sortze garbiamen donkitutako bakar-echea.

1519^{-garren} urteko Mayatza-ren 31^{-an} ipiñi zan lenengo aldiz, Aita Done Leon Amargarrena-ren aginduz, eta Done Franzisko-ren irugarren ordenako emakumiak bildu ziran bertan, Jauna-ren serbitzuan beren biziak igarotzeko.

Bañan ainbeste aldiz su ikaragarriak esagutu izan dira erri ontan, ainbeste kalte egin izan dute alde batian ta bestian, ez da arritzeko kalte oyek iristea Kristo-ren emaste errukitsuai.

Ala 1638^{-ko} Irailla-ren 2^{-an} arras kiškaldu, autz egin zuben su ikaragarri ayetako batek emakume doakabe ayen eche atsegiña, ta gajuak arkitu ziran kalien gañian, zeruba goyen ta lurra bian, Jauna-ri beren otoitz šamurrak egiteko lekuri ere ez zeukatela.

Bañan Jaun Errukitsuak, aide-ko chorien kontu daukarren Jaun aundiak, ez zituben laja bere laguntza gabe lurre-ko chori estitsu ayek, eta sortu ziran ongilleak, eta aundi ta chiki, aberatz eta beartzu danak alkar arturik, danen artian alcha zuten eche eder apaiña Jaunen Jaunari donkitua bere Ama Donea-ren Sortze garbia-ren izenian.

Emakume done-ayek egin ziran beraz jabe berriro beren bakar echeaz, eta geroztik an beren otoitz bero, šamur, estitzuakin eskatzen diote Jaunari Segura-ko uria-ren onerako, ta baita ere Euskal-erri guzira.

Zerain-go goialdetik begiratzen danian orain Segura aldera, ikusten da baratz zoragarri arren erdian, gain gainian, eleiz nagusi apaña uri-ko

echeak inguratzen dutela ta bere aldamenian Bakar-eche atsegiña bere otoitzakin laguntzen dubela uriaren oraingo ta betiko zorionera.

Eliz abetzaz gañera badira oraindik beste zazpi eleizacho: Done Engrazia, Done Andres, Done Bastian, Done Migel, Done Barbara, Done Bizente ta Sancti Spiritus.

Uste danez, Done Andres-en eleizachoaren inguruan, egon zan lenbiziko Segura-ko uria, ta orduban eleizacho ori eleiz nagusiya zan. Erre zan lenbiziko uri ura ta egin zan berriya orain arkitzen dan leku berean, ta Done Andres-en eleiza gelditu zan eleizachotzat orain ikusten dan bezela. Done Engrazia-ren eleizachoa-ere eleiz-nagusi izan zan, baña denbora guchiyan, bada geyenian eleizachotzat esagutu izan da.

Sancti Spiritus izendatzen dan eleizachoa, Done Adrian-go sarreran arkitzen da, ta lengo denboretan Templo-ko zaldunen echea zan. Ez



AIZARNA.—Done Engrazia-ren eleizachoa.

da zaldun ayen eche bakarra Gipuzkoa-n esagutzen dana, bada beste mendi-tontorretan, batian ta bestian arkitzen dira eleizacho geyago, lengo denboretan Templo-ko zaldunenak izandubak. Ala Aizarna-ko gañian, tontor tontorrian, an dago zut zutik Done Engrazia-ren eleizachoa, lenago zaldun ayek egondutakoa.

Lengo aunditasun ta leñargitasuna azaltzen du Segura-ko uriak bere jauregi ta purube echeetan, lenago ere esan degun bezela.

Bere karrketan jira bat egin besterik ez dago egia au ala dala esagutzeko.

An arkitzen dira eche ederrak, galantak, apainak; tellatu egal edo leorpiñ zabal zabalak goi aldia estaltzen diela, ta eskutarma ikusgarriak eche aurea edertzen diotela. Leyo ta ateetan ere agertzen dira apainketa gain gañekoak. Begiratu utsakin esagutzen da lengo deboretako aunditasuna.

Gaurko egunian eche berriak egiten sayatzen diranak, Segura-ko jauregi ederretan arkitu litzazkiteke zer ikasiyak beren egipen berrietako.

Eta kanpoa bezin ederra, ta biar bada ederragoa da beren barrena. Echeak dira zabalak, lasayak, eta goieta ere naikua baño neurri geyagokuak. Gela eder ayetan ez dago aize eskasiyaz itozteko bildurrik. Gela nagusi, otorduetako ta gañerako guziak, danak dira gain gañekoak, danak apainak, danak ikustekoak.

Eche abetako zenbait ondatu samarrak daude, bañan oraindik ere makiñachobat arkitzen dira ongi gordiak, eta ez guchi lengo ichura atsegiña galdu gabe berritubak izan diranak.

Abetatik atatu litezke beren abizen leñargitsua Lardizabal, Zurbaño ta abar dituztenen eche gain gañekoak.

Lengo sendi zarrenetako ta leñargitsuenetakuak dira esan ditugun abizen oyetako jaunak, eta doakabez arkitzen dira orain, beste erriko zenbait jendekin ez ta bai ta ezin ikusi naikoakin. Onek ez lezayoke ezer gauza onik erriari ekarri. Kalte naikua bai. Uri bat goratzeko, alchatzeko, zoriontzeko, bere seme guztien batasuna biar da. Elkarte onen indarrez bakarrik igo liteke uria-ren izena goyeneko malletara. Onen kaltez dijoana uria-ren kaltez dijoa.

Otoi egin ziyogun Jaunari, elkaturik Segura-ko seme sintzo guztiak, uri au izan dedila zugatz galant, bikaina, lengo sendi zarretan sustrai indartzuba arturik, goyen osto berriyak zerubari erakusten dizkana.

(Jarraituko da.)

HERMENEGILDO SUSTAETA



SEGURA

(Jarraipena.)

SEME ARGIDOTARRAK

Segurar seme ospatsuen artian aitaturko degu lenbizi Pedro Apaolaza, 1625^{-garren} urtian Barbastro-ko Apezpiku zegona. Gero 1644^{-garren} urtian aukeratu zuten Zaragoza-ko lenapezpiku, ta ala egon zan bere ontasun ta asko-jakitea erakutziaz, 1644^{-garren} urtian il zan arte.

Gebara-ko Nikolas Belez, gipuzkoar azkarra, Segura-n jayua da.

Otsandikoak izan dira Gipuzkoa-n Gebara-tarrak eta abisen ortakuak asko esagututzen ziran 11^{-garren} eunkida ezkeroztik, batit bat Oñatiko jaunak ziralako orduban, gero 15^{-garren} eunkida ezkeroko Oñatiko kondien izenakin esagutu izan diran bezela.

Oñatiko lenengo kondia-ren semia zan Gebara-ko Nikolas Belez, segurarra; Errege Katolikoan ozentari egin zuten ta Santiago-ko zaldun, ta Kartajena-ko gaztelu-zai ta ekadoitari nagusiya. Ontaz gañera Ameyugo ta Tuyo-ko jaun zegon.

Esagun da gizon azkarra, trebia, artakua zala segurar seme ospetsu ura.

Otsaundikoa zan beste segurar fede bizi ta sutsukua Ondarza-ko Juan. Pralle Done Franzisko-ren ordenakoa zan, ta ondo maite zuten bere agintaritzat zeuzkan pralle donekarliak.

Naitasun aundiya ziyon Ordenako burusadi edo jeneralak, eta etziyon chikiyagoa iruki Aita-Santu izatera irichi zanian 1585^{-ko} Jorraiillaren 24^{-an}, Sixto Bostgarrenaren izenarekin.

Orduban segurar zintzoak Aita-Santubarekin zeukarren adiskidetasunen bitartez, bada lagunik atzegiñena bezela zeukan, on asko egiteko zoriyan arkitu zan. Eta bai egiñ ere gogotik, bada bere biyotz beroak bultzatzen zuben alik on aundiyanak egitera.

Esan liteke denbora artan euskaldunen gain zeudela eskubide aun-

dienetakuak Eleiza-ko gauzetan; bada Sixto Bostgarrenak Aita-Santu izateko utzi zuben utzuna: gipuzkoar argidotar batek bete zuben, Fray Franzisko Tolosa-koa deitzen zan, bera abiseneko urian jayoa ta eun ta berrogei lagunen borondatez aukeratu zuten frantziskano-en Ordenako burusadi edo jeneral izateko.

Baziran orduban, ikustendanez, gipuzkoar yayo, azkar, trebiak, eta etzan motelenetakua Ondarza segurar bikaña.

Geruago ere agertu ziran gizon artakuak Segura-ko uri atsegiñian. Abetatik bat ots aundikua Juan Bautista Orendain ta Azpilkueta izantzian.

Grimaldi lenengoarpelari edo ministroaren jarraile gazte edo paje asi zan, baña ain zan buru azkarra, ain artakua, ain biziya, piškabana-ka gorago ta gorago igoaz, irichi zan egoitzako ta gordairuko lenengoarpelari bera izatera.

Ala zegon 1725^{-garren} urtian Riperda-kin batian Orendain-ek eraso zionian Biena-ko eralguda edo tratadua antolatzen. Eta Orendain bera arkitu zan 1729 eta 1731^{-garren} urtian Sevilla-n erabaki zutenian Pakeko eralguda, Ingalterra, Frantziya ta España-ren arteko adizkidetasuna ta alkarren arteko laguntza ipiñiaz. Lan ayen gatik Felipe Bostgarrenak izendatu zuben Pakeko Markes eta eman zizkan España-ko aunditasuna ta beste onore asko.

Bañan aunditasun ayek guztiak ez ziyoten astu asi Euskal-errira-ko zuben griña sutsua, ta gogotik egin al guziak egin zituben gure erriaren alde.

Batzen nagusiak ondo jakiñak zekazkiyen egipen ayek guztiak eta nolabait agertzia gatik bere eskerra, 1730^{-garren} urteko billaldietan aukeratu zuten batzen-nagusiaren lenenburu. Atsegin aundia izan zuben Orendain-ek jakin zubenian bere erritarren erabakidea, ta bera ezin etorri zitekielako, jarri zuben ordeko Urtarte-ko Antonio Joakin jauna.

Orendain ospetsua 1733^{-garren} urtian il zan.

Azkeneko denboretan asko sonatuba Inazio Lardizabal jauna izan du da. España-ko gudarietan aginte aundikua zan (erregearen guardiako kapitan edo beste gudarien koronel) ta 1833^{-garren} urtian karlostarren buru irten zan mendira ta jeneral izatera irichi zan.

Irun-en il zan Lardizabal segurarra 1849^{-ko} Ilbeltza-ren 24^{-an}. Orduban 63 urte zeuzkan.

HERMENEGILDO SUSTAETA

También ha tratado del mismo asunto la Comisión provincial de Monumentos de Guipúzcoa, encargada en lo sucesivo de la alta inspección del claustro de San Telmo. En breve se reunirá nuevamente en sesión magna, para adoptar importantes acuerdos relacionados con el último decreto.

El Consistorio de Juegos Florales Euskaros, inspirándose en el patriótico pensamiento de sus fundadores, ha consignado también su complacencia por tan halagüeño resultado.

A todos felicita hoy la EUSKAL-ERRIA, pero de una manera especial al pueblo de Donostia, que es la que en realidad debe vestirse de fiesta en la presente ocasión.

Se ha salvado, en efecto, este amable recuerdo del viejo Donostia, en condiciones extraordinarias.


Anunciada la venta del castillo con las fincas militares colindantes, entre las que figuraba San Telmo, no pudo celebrarse el día anunciado por falta de licitadores, y quedó desierta la subasta.

¡Asusta el pensar las consecuencias de la presentación de un postor!

En estas circunstancias y cuando ya se hablaba de celebrar segunda subasta, es cuando el Real decreto ha venido a asegurar la existencia del claustro de los viejos recuerdos donostiarras.

Alegrémonos, pues, de esta definitiva y salvadora resolución.

E. E.



SEGURA

(Amaya.)

PURUBE ECHEAK

Lengo aunditasuna azaltzen dute Segura-ko urian, purube eche leñargiak. Makiñachobat badira, ta ederki asaltzen ditu Arrasate-n dagon euskaldun asko jakin ta trebeak, Juan Karlos Gerra jaunak.

Bere idatzi gain gañekoetatik artzen ditugu ondoren aitatzera guazzen berriak.

Aguirrezabal edo Aguirrezabala, Agirre deitzen dan Gabiri-ko echeatik zetorrena da.

Alzibar purube echeak bere eskutarman asaltzen zuben abizenaren erakusgaya: altza-ren ibarra.

Aldaola edo Aldaolaecha, Aranguren, Areizaga, Arrizabalaga ta bi Arrue-ren izenekoak ots aundiko echeak ziran.

Baita Astigarraga, ere izen aundikoa zan, bañan aben gañekoa Aurgaste izeneko zan. Plaza-aurrean dagon dorrean iru eskutarma zeuden, lenengoa Aurgaste-tarrena, bigarrena Yarza-ko jauregia-rena ta danen gañian erregearena; ala agindu zubelako Enrike laugarrenak aide-nagusiak menperatu zitubenia.

Aztiria-tarrak, geyago biar bada, esagutzen dira Gabiria-n, baña baziran Segura-n ere.

Bandos izeneko ere bazan uri ontan, ta bere eskutarmetan uri-ko lau berezki zarren ageriak zeukazkien bere zugaitz eta otsoa-kin.

Berasiartu, Berastegi, Egurza, Gorostorzu, Gebara ta Jauregi, Segura-ko purube eche jatorren izenak dira, ta leñargietako bat, seme argidotar asko eman ditubena Lardizabal-tarretako echea. Oraindik ikusten dan jaun aben jauregi eder eta apaña, lengo gisaldietako edertasunak ugari asaltzen ditubena.